

II. PRINTZIPATUA: INPERIOAREN KUDEAKETA (K.o I- III)

Aurreko gaiaren amaierari birpaso txiki bat emateko esan beharra dago, I.mende bukaeran tentsioak geroz eta handiagoak izan zirela, batez ere, botere triangelu horren baitan, aldeetako batek (magistratuek) geroz eta botere gehiago eskuratu zutelako, beste bi aldeak ahultzen ziren bitartean. Magistratuek armada borroka politikoaren barnean sartu zuten eta euren boterea nola edo hala mantentzen saiatu ziren. Hortaz, *imperatores* eta senatuaren artean lehia sortu zen, sistemaren boterea eskuz aldatzen ari baitzen.

Egoera egonkortzeko, triunbiratuen sistema sortu zen, hau da, magistratu gorena 3 pertsonen artean elkarbanatzea, bi pertsonen artean baino. Esperimentu hau, lehenengo aldiz Zesar, Ponpeio eta Krasorekin eman zen. Zesar eta Ponpeio lehian egonik, Krasok egonkortasuna ekarri behar zuen, baina ez zuen lortu eta Zesar eta Ponpeiok elkar borrokatu zuten, Zesar irabaziz, *dictator* ezarri zelarik. Senatuaren zati handi bat ez-legitimotzat hartu zuen Zesarren izendapena eta, ondorioz, bertako zenbait kideek hil egin zuten.

Bigarren triunbiratua Oktabio, Marko Antonio eta Lepidorekin eman zen; lehenengo biak indartsuenak ziren eta bestea oreka ezarri behar zuen, baina berriro ere, bi indartsu hauek borrokatu egin zuten boterea lortzeko eta Oktabio izan zen garaile. Baina Zesarren adibidea ikusita, *dictator* papera baztertu egin zuen eta *princeps* izendatu zuen bere burua (lehenengoa esan nahi du). Garai honi guk printzipatua deitzen diogu K.a.I.mendetik aurrera eman zena, honekin ohiko triangelua desagertuzat eman daiteke, izan ere, *princeps*-a izango da botere guztia izango duena eta bera izango da erabakiak hartuko dituen. Hala ere, Oktabiok guztia aldatu bazuen ere, sistema barnean kokatzea lortu zuen, edo behintzat, itxura hori ematea, Zesar aldiz, sistematik kanpo kokatu zen eta horregatik hil zuten. Hau da, erromatarrentzat *res publica* jarraitu zuen, soilik honen aurrean buru bat zuelarik.

Printzipatuaren izenak berak eztabaida gaia izan da; horrela frantseek nahiago izan dute “inperioa” deitzea garai honi. Printzipatua izendatzen denean, sistema politikoan jartzen da indarra, hau da, sistema kudeatzen duen subjektuan: *Princeps*-a. Bigarren hau historiografia alemaniarrari zor zaio batez ere.

Horrekin batera, printzipatuaren hasiera datarekin ere eztabaida dago. Argi izan behar dugu eztabaida hori gurea dela eta ez erromatarrena, beraientzat *res publica* ez zelako amaitu. Lau data proposatzen dira eta guztiek Augustok bere burua Erromako salbatzaie gisa aurkeztu zuen puntu edo data ezberdinei dagozkie: 31,29, 27 eta 23. Aukera libre da, baina adostasun handiena 27an dago.

5.AUGUSTOREN ERREFORMAK

Orain aldaketa oso handi bat gertatuko da eskema tradizionala hautsiko duena (Errepublikarena, *consensus universorum*) sistemaren apurketa nagusia, inperio batean bihurtu izana izan zen. Inperiorik gabe gauzak (triangelua) beti bezala geldituko ziren baina konkista burutzeak krisia ekarri zuen Errepublika berantiarrean. Botere exekutiboa zutenak, botere gehiena eskuratu zuten, eta honekin galdera hau sortzen zaigu: zergatik hau eta ez besteak? Ba oso erraz, armadaren boterea eskuratu zutelako.

Oktabiano hirutan Senatuarengana joan ondoren, *princeps* izenekoa eratu zuen eta hemendik argi geratu zen, aurreko sistema, Errepublikarena bitan banatuta zegoela, Erroma (betiko erakundea; senatua, asanblada eta magistratuak → ez zen aldatu) eta honekin batera, Inperioa (lurraldetasunarekin lotuta zegoena), hauek bi bereiztu behar ziren. Sistema biziratueko bi hauek banatu zituzten, Erroma beti bezala mantentzen zuten bitartean Inperioan berrikuntzak sartu zituzten, azken honetan agintzeko erabilitako tresnak; armadak, administrazioa, *princeps* ziren. Honen legitimazioa zertan datza? Inperioa existitzen zelako eta hau kentzen badugu, enperadorea eta *princeps-a* desagertuko lirateke, hauek bakarrik existitzen direlako bestea dagoen heinean.

Senatuak opari bat egin zion, *clipeus virtutis* izeneko ezkuktua onartu zuena. Horretan, pritzipatuaren leloa eta boterearen oinarriak zeintzuk izango ziren ezarri zen,oinarri horiek hurrengo lauak izango ziren:

- ❖ *Virtus*: gizontasuna edo gizonaren kalitatea, hau da, zintzotasuna gerran, ona izatea beraz
- ❖ *Iustitia* : zuzentasuna
- ❖ *Clementia*: garaituak ondo tratazea, horrek tirania aldentzen baitu
- ❖ *Pietas*; jainkoekiko errespetua

Beraz, *princeps-aren* botere iturria inperioa izango da eta hau mantentzeko bere ardura nagusia urteetan zehar, inperioa mantentzea izango da berari legitimazioa ematen diona delako. Erromak aldiz ez du printzerik behar mantentzeko baina bestea bai.

Augustok *Res Gesta*-en ez dio imperioari lurraldetasunaren terminoa atxikitzen, imperioa berarentzat botera delako eta ez du zerikusirik bestearekin. Berarentzako *terra marique* da inperioa.

Administrazioa aurrera eramateko, Erroman denek dakite nondik datozen eta zer diren baina Inperioan berriz daudenak, haien leialtasuna ez dago hain argi (zergatik sentitu behar dira erromatarrek). Beraz, identitate berri bat behar dute eta honi leialtasunarekin batera aurkituko dugu (lurrarekiko, etxearekiko, lagunekiko). Inperioan dauden guztiak *princeps*-arekin izango dute leialtasuna eta identitatea honekin egongo da, horrela sortzen da lehen faktore nagusia printzearen gurtza → **gurtza inperiala**. Hau izango da, inperio guztia lotuko duena identitate berri batean. Horregatik, inperioko probintzia eta hiri nagusietan, tenpluak egongo dira gurtza hau eramateko, erlijiosoaz izateaz aparte politikoa da (lehen Jupiter zen moduan inperioa izango da).

Armadaren leialtasuna ere beharrezkoa izango da *princeps*-arentzako eta administrazioan ere konfiantzazko pertsonak jarri beharko ditu eta hauek ez dira izango senatariak (ez direlako fidagarriak). Tokiko jendea izango dira, zaldunak (diru adina dauzkatenak kargu publiko bat eskuratzeko baina ez dutenak nahiko senatariak bihurtzeko). Honela, “klase berri bat” sortuko da, *ordo equester*, oinarrizko mailatik gora egiten duena eta leialtasuna *princeps*-arekiko izango dena.

Erromaren ardura nagusia beti izan dute izango da, hiritartasuna ematea, hiritar berri guztiak Erroman erroldatu behar direla nahiz eta inoiz Erroman egon. Hau delako, senatuak eta magistratuak kontrolatzen duten gauza, zenbat pertsona sartzen diren erroldan. Gainera, gerran jende asko hil izanak lagundu egin zion, baina horrez gain, 500.000 hiritar berri izendatu zituen, horiek beti bere alde egingo zutelako.

Agustorekin (*Pax Romana*) gauza asko argi daude baina beste batzuk ez, segun iturria. Sorrerari buruz adibidez, datak ez dira zehatzak, botere ezberdinak hartzen dituen urteak hauek izango dira (31,28,27,23,19), guk hartuko dugun data 27a izango da izenaren aldaketarekin kointziditzen duena.

Jatorriak (ezohikotasuna/ probidentzialismoa)

- Eredu helenistikoa: helenismoaren kutsadurak sistema politikoaren eragin zuen eta monarkia eredu, Alejandro Handiarena ekarri zuen.
- Konkisten zabalera: menpekotasun unibertsala
- Erakundeen deskreditazioa: ezohiko neurriak
- Mentaldideen garapena: monarkiaren presentzia, jainkoen laguntza, zerbitzu publikoaren krisia (armada/nekazaritza)
- Pentsamolde berriak: epikureismoa; molde berri bat beharrezkoa zen, beste batzuk Epikureismoa (indibidualismoa) sartzen dute, monarkiaren aldeko joera filosofikoak, momentua disfrutatu behar da, politikoaren estoizismoaren kontra doa (komunitatearen alde).

Printzipatuaren sorrera (K.a.28-23)

- K.a.29: Kleopatrararen kontrako gerraren bukaera
- *Rex* hitzaren gaitzespena izendapenean, erromatarrek ez zuten hitza onartzen, etruskoen sistemarekin lotzen zutelako eta eremu erlijiosoan erabiltzen zutelako eta ez politikoan.
- Senatuaren *auctoritas* galdua (prestigioa gordeta, hori bai)
- Oktavioaren nortasuna: familia ahula eta karrera militar eskasa

3.RES GESTAE

Zein zen Augusto?

Zesar Augusto (latinez: *Gaius Iulius Caesar Octavianus*; K.a. 63ko irailaren 23a - K. o. 14ko abuztuaren 19a) lehendabiziko enperadore erromatarra izan zen, eta askoren ustez baita garrantzitsuena ere. Hala ere, berak *princeps* titulua (Senatarien lehenak hartu ohi zuen titulu hori) hobesten zuen, Errepublikaren ohiturei eutsi nahi baitzien. 40 urtez

Erromako botere osoa izan zuen. Haren agintaldiarekin batera azken mendeko gerra zibilak bukatu ziren. Bakea (*Pax Romana*) eta oparotasuna ekarri zituen.

Zein da testuaren kronologia eta kokapena?

Testuaren kronologia ezartzea zaila da berez Erromatar Inperioaren lehenengo enperadorearen, Zesar Augusto zena, inskripzio luzea da. Gainera bere bizitzari eta bere obretaz lehenengo pertsonan idatzitak daude. Bere hiru dokumentu testamentarioen kopia da, jatorriz testua grabatua izan zen Augustoren Mausoleoaren “jambetan”, hau dena Vita Augusti de Suetonio, 101 dakigu.

Testamentua izanik, K.o.14.mendean izan zen eta gai nagusia, Augustoren goraipamena helburu publizitarioarekin, inperioaren ideia zabalduz erromatar inperio guztirako. Ideia berri bat da,

Topatu zen lehenengo kopia grekeraz zegoen eta horrekin dakigu monumento publizitarioa zela, inperio osotik zabaltzearen. Inperioko leku askotan kopiatu zen beraz hemen irakurri duguna inperioko eraikin handietan (askotan) egoten zen, mundu guztia ikustearren.

Zeintzuk dira Res Gestae-tan jorratzen diren gaiak?

Testuan jorratzen diren gaiak lehen esan bezala, batez ere Augustoren memoria politikoak dira haien artean; senatuan egindako lehenengo ekintzak, bere aitaren oroitzapenak, bere tropekin eta zintzotasunaren aurkezpena, kaudillo militar bezala egindako triunfoak, boteraren ezeztapena baina ez erantzukizuna, kargu garrantzitsuen okupazioa, senatuan eta komunitate erromatarrean ordena ezarri, besteak beste.

- *Res publica restituta*, historikikoi ez da egia beraz tresna bat da honen bidez, sistema politikoa aldatu nahi du senatuaren laguntzaz.
- Kanpoko politika printzearen eskuetan geldituko da baina helburu zehatz batekin, ezagutzen den mundu guztia kontrolatzea *terra marique* → inperio unibertsalaren ideia

- Printzeak isladatzen duen inperioaren izaera, inperioa enperadorearena du.
- Inperioaren oinarri soziala → plebea (bere alde dagoela), plebearen laguntza izango du
- Azken paragrafoa: “Augusto” eta “Padre de la Patria” proklamatzeko dute. Esaldi garrantzitsuena: Magistratuak Potestas eta Imperium zeukaten, botere zibila eta botere militarra zeukaten. Esaldi horretan Augustok guztia elkartzen du inperioaren zentzua markatuz. Hemendik...MIREN. baina potestas benetazko botere herriak izango du (hemen definitzen du nolakoa izango da inperioa), ni izango naiz magistratu lehena baina ez naiz izano besteak baino gehiago → autoritas eta potestas

Zein da testamenduaren ideia nagusia?

Zesar Augusturen propaganda politikoa egitea (?)

Nolakoa da Augustok proposatzen duen res publica?

1.-4. ATALAK

Lau atal hauetan Augusto Erromaren salbatzaile gisa aurkezten da. Augustok Erroma salbatu du eta boterea bereganatu du, ez berak nahi zuelako baizik eta eskatu egin zaiolako. Dena den, atal hauetan deigarriena Augustoren gaztetasuna da. Hau da, Augustoren figuran ezohikotasuna da nagusi:

Oso gaztea izanik, 19 urterekin, eta magistraturarik egikaritu gabe, bere erabakiz, armada bat osatu zuen eta res publicari libertas bueltatzea erabaki zuen. Hortaz bere erregimena ezohikotasun batean edo, hobe esanda, legezkotasun ezean oinarritzen da hasieratik. Hori dela eta, egoera horri buelta ematen saiatuko da etengabe. Res publicari libertas bueltatzeagatik senatuak sari moduan bere baitan onartu zuen horrela, senatuan bere posizioa legitimatzen hasi zen; ondoren, magistratua izendatua izan zen, lehengo pretore eta segituan kontsul. Baina kargu guzti horiek onartu zituen senatuak eskainita, hau da,

modu legitimo batean. - Beti: ezohikotasunetik legitimidadera. Hasieratik onartzen du bere boterea eskuratzeko modua ezohikoa edo ezberdina izan zela, baina modu zaharrez ezarri zen gero boterean.

Legitimitatea bilatu eta aldarrikatuko du beti. Bere aita hil zutenak hiltzaile bezala izendatzen ditu. Izendapen honek bi dimentsio ditu: batetik, deklarazio publiko bat da, eta adierazten du senatuaren parte bat errepublikaren traidorea dela; bestetik, bere burua aldarrikatzen ari da, izan ere, bere aita hil zuten pertsonak hiltzaileak izan baziren, berak bidezko arrazoiak izango zituen gero gauzatuko zituen ekintzak (armada bat batu eta borrokatu) aurrera eramateko. Horrez gain, epaiketak aipatzen zituenez, legalitatea aldarrikatzen du bere ekintzetan.

Bere sistema sostengatzen duen jendea bilatuko du Augustok, bai Erroman nahiz Erromatik kanpo. Bere alde lehenengoz, magistratuak jarri zituen, bigarrenak hiritarra eta azkenekoak jainkoak denak daude bere alde eta, gainera, ovationes eta triunfos izan zituen, hain zuzen jainkoen onspen hori jendeari erakusteko. Bestalde, Augusto lehenengoa izango da esango duena mundu guztia (terra et mare) erromatarrena da. Errepublika garaian inperioak ez zeukan lurraldetasun horren markatua, baina printzipatuarekin lurraldetasuna lehenengoz bat bihurtuko da, eta inperioa mugak dituen hedadura zehatza izango da.

5.-8. ATALAK

Bosgarrenean aipatzen du berari karguak ematen dizkiotela, baina berak ukatu egin zituela azkenean, asko insistitu ondoren bakarrik onartu zituen; hau da, berak ez zuen boterea usurpatu. Seigarrenean Augustoren nahia antzinako lege zaharrak mantentzea eta hortaz errepublika zaharra defendatzea da, nahiz eta ezohiko egoera batean egon. Zazpigarrenean berak dituen kargu guztiak azaltzen dira (garrantzitsuenak) eta zortzigarrenean patrizio eta hiritar kopurua handitu zela azaltzen du eta hiritar horiek bere alde zeudela (hau da, hiritar berriak izendatzen ditu bere alde egin dezaten).

Hasierako planteamenduaren jarraitzen du: mundu guztia bere alde dago Senatua eta magistratuak bere alde jartzen ditu libertas eskaintzen; beteranoak bere alde jartzen ditu

lurrak eskainiz; atzerritarrak, erromatarrak obeditu behar dituztelako; jainkoak alde jartzen ditu garaipenak eskaintzen dizkiolako; eta plebsa bere alde jartzea lortzen du janaria ematen. Hortaz, jendearen leialtasuna erosten dago puntu bateraino, behintzat. Plebea printzipioz ez da estatuaren ardura, baina hala ere, berak bere erabakiz eta bere diruz laguntzea erabakitzen du, plebearen mesedea irabazteko. Hau munificentia famatua izango da: *''The Latin term munificentia is derived from munificus („one who carries out the duties of office“, „munificent“), an adjective in turn derived from munia (munus) and facere. The term munificentia, used by Sallustius to characterise Caesar's generosity (Sall. Catil. 54,2)''*.

Mos Maiorum berak aldarrikatzen du berak egiten duena agian ez dela legearen araberakoa, baina bai *mos maiorumenaren* araberakoa, hau da, antzinako tradizioen araberakoa. Hortaz, berak egiten dituen legeak ez dira lege berriak, baizik eta zahar berriak. *Mos Maiorum*ez gain *exempla* ere agertzen da, bi hauek bere sistemaren oinarriak izango direlarik. Lehenengo aldiz, *princepsa* eredu / *exemplum* bezala aldarrikatuko da eta hemendik aurrera, ereduaren eta ohituren oinarria bera, *princeps*-a izango da.

9.-13. ATALAK

Pasarte hauetan Augustok aurrerapauso bat eman du, erlijioaz baliatuz sistema mantentzeko bere pertsona ezinbestekoa dela aldarrikatzen baitu:

- ❖ Erregimena berresten ari da eta bere burua erregimenarekin lotzen ari da berak bakea ekarri zuen eta errepublikaren salbatzailea izan zen, eta horregatik ohore guztiak merezi ditu. *Res publica constituere*.
- ❖ Herriaren kotsentsua bilatzen ari da eta kotsentsu hori gehienbat erlijioan oinarritzen ari da. Herri guztiak nahi du Augusto boterean egotea, maila altuenetatik hasita maila baxuenetaraino.
- ❖ Kulturearen eremua: Augustoren kultura ez da eremu publikora mugatuko soilik, horrez gain pribatua ere emango da.
- ❖ Ohorea eta bertutea: bere sistemarekin lotu nahi dituen baloreak.

- ❖ Sistema barruan Augusto salbatzailea da, eta kanpoan inperioa baketu du. Beraz, alde guztietan ezinbestekoa da. Hori dela eta, Augustorentzat osasun ona eskatuko da, hobereena Augusto ahalik eta denbora gehien bizirik egotea baita.

14.-18. ATALAK

Atal hauetan oso gauza garrantzitsua esaten du, izan ere, hemen jada ez du soilik bere pertsonaren garrantziaz hitz egiten; orain, ondorengotzaz ari da. Hau da, bere ostean bere seme-alabak etorriko direla dio, eta hori egin ahal izateko bere semeak ezohiko magistratu egiten ditu (15 urterekin jada ziren magistratu). Azken finean, bere sistema promozionatzen ari da, bera hiltzen den momentuan, sistemak jarrai dezan.

Augustok, lehen bezala jende txiroari eta armadari janaria eta dirua ematen dizkie. Beraz, lehen ez bezala, sistema ez da aristokrazian sostengatuko soilik, horrez gain, bi talde hauen leialtasuna izango du. Hortaz, hurrengo hiru taldeak izango ditu bere sistemaren oinarri gisa, itun baten bidez egongo direnak bere alde: 1) Aristokrazia: bere semeak (aristokraziaren kideak direnak) hurrengo *princeps* izendatzen dituelako eta hortaz, sistemaren jarraipena bermatzen duelako; 2) Plebea; 3) Armada.

19.-24. ATALAK

Augustok tenpluak errestauratu zituen, bere izena jainkoekin lotuz. Horrez gain, Erromako tenplu garrantzitsuenak berarekin, princepsarekin lotuko ditu.

Ikuskizunak eskaintzen direla dio, enperadorearen irudia goraiatzeko (*ludis saeculares* berreskuratuko dira). Jokoak jainkoekin lotuta daudenez, horrela Augustoren irudia jainkoekin lotzen da. Eta hemen jada ez da bakarrik agertzen semeak eta ilobak aipatzen ditu; hau da, familia inperial osoa sisteman sartuta dago.

26. ATALA

Augustok inperioa handitu zuen baina gainera konkistatutako lurraldeetan bakea ekarri egin zuen Augusto bakearen eragilea izan zen (Pax Augusta).

Errepublikaren garaiko ideologiarekin jarraitzen du, *bellum iustum* erromatarrek gauzatzen dituzten gerra guztiak justuak edo bidezkoak dira. Horrez gain, aurreko ideologiarekin edo *modus operandi*arekin jarraituz, lehenik eta behin *amicita* eskaintzen zuten, baiian ez bazuten onartzen aurkariak sunsitzeko eskubidea zuten.

Lurraldetasunaren ideiarekin jarraitzen du Inperioa jada ez da gauza etereoa baizik eta lurretan oinarritzen den gauza. Horrekin batera, *terra marique* ideiarekin jarraitzen du Erromak ezaguna den mundu guztia (edo behintzat pena merezi duena) menperatzen du (edo gutxienez lurraldeek obeditzen diote).

Lurraldetasunarekin batera, mugak mugak, *limes*, agertuko dira, inperioaren lurraldearen nondik norakoak zehazteko eta inperioa hobeto definituta egoteko eta, horrela, hobeto defendatu ahal izateko. Horrez gain, mugen barruko lurralde guzti hori antolatu beharra dago. Hori dela eta, garai honi inperioaren kudeaketa deitzen dio.

34.-35. ATALAK


Bi atal hauek garrantzitsuenak dira, bere eredu osoa definitzen dutelako.

(35) Gogoratu behar den esaldi nagusia da: besteek baino auctoritas gehiago izango dut baina ez *potestas* gehiago. Horrekin *consensus* edo adostasun berri bat sortzen da, errepublika garaikoaren desberdina dena eta inperioaren *consensusa* izango dena *princepsa* ez da besteak baino gehiago izango baina besteei baino gehiago entzun behar zaio. *Consensus* hori aurrera eramateko bi gauzetan adostasuna lortu behar dute: 1) boterea banatzeko modua edo partekatzea (berez, boterea partekatu behar dutelako); 2) ondorengotza.

(36) Nahiko zaharra zen gari horretan. Honek esaten dizu zelan izango zen boterearen partekatzea hortik aurrera. Enperadoreen leloa beti izango da boterea partekatu behar dela eta *consensus* berri bat lortu behar dela. Kontrakoa discordia izango da, gerra zibilera eramango duena.

Anbiguitatearen elementuak

1. Greziar pentsaera (erromatar izaeran eragin handia izan zuen)
 - Printzea erakunde errepublikanoetan enkuadratuta
 - Berritasuna isildu
 - Azpimarratu jarrairikortasunaren elementuak
 - *Res gestae Divi Augusti* (K.o.a14)
 - Ohoreak eta ardurak (1-14)
 - Gastuak (15-24)
 - Baketzaile eta konkistatzaile



Ezagutzen dutena: Afrikako iparralde (Libia, Egipto, Nilo ez oso argi non jaiotzen dena, Zirene, Numidia eta Mauritania eta Kanariar irlak) Populazio beltza Etiopiatik dator erromatarrentzat. Europan: Hispania, Galia eta Britania (Irlanda gabe), Italia, Milizia, Trazia (Rumania), Sarmatria (Volga, Ukraina eta Errusia) eta Grezia. Irla mitikoa; Tule izenekoa. Asian, mesopotamian (muga eufratesen) Parkia (antzinateko pertsia), Indiaraino. Seres herria, Zetaren herriak ez du kokapen zehatzik. Escipia (Volga inguruan).Gutxi gorabehera guztia guztia konkistatu dute. Horregatik Augustoren agoraren erdian, jende konbenzitzeko gaitasun propagandistikoa, inperioaren itxura “gezurrezkoa” erakusteko. Urte batzuk geroago, galtzaden mapa egin zen, IX. mendekoa kontserbatzen dugu ez jatorrizkoa. Hispaniako zonaldea ez da kontserbatzen

Erromako hiria, Errepublika garaian estatuaren berdina zen baina orain hiria senatuaren menpe egongo denez honek kontrolatuko du, klase berri bat sortuko da *ordu senatorius* (senatarien maila). Honen funtzioa, Erroma kudeatzea, tradizioa mantenduz izango da.

Inperioa, lurraldekotasuna, Germaniara, Eufrates, Mauritania eta Britaniara irtsiko dena izango da eta hau ere beste klase baten menpe egongo da, *ordo equester*. Printzearen menpea, inperioaren kudeaketa bultzatzen duelako, probintzia inperialen bidez. Probintzietako mugak finkatzen dira, batzuk inperialak (Zaldunen eskuetan) eta beste batzuk lehen probintziak (Senatarien esku). Hau kudeatzeko zaldunen artean karrera profesional bat sortuko da; funtzionario baten antzekoa .

Ardurak printzeak sortuko ditu, *procurator*-a funtzionarioa, ardura *procuratela* deitzen da eta gaur egun funtzionarioak betetzen dituen funtzioak betetzen ditu.

Sentariak betiko karrera eta karguekin jarraitzen dute; *cursus honoris*

- Consul
- Edil
- Pretorea
- Cuestorea
- 4 urtetan behin zentsoreak

Magistratura hauek senatarien eskuetan geratzen da, Consul, Praetor, Aedil eta Cuestoreak. “Fosilizatzen dute karrera, baina Erroman bakarrik erabiltzen dira). Erromatik kanpo procuradoreak egiten dute karguaren antolamendua, milaka daude: portuak, ekonomia, administrazioa...

Ondorioa, ordo equesterren garapen handia emango da, I.-II.-III.mendeetan zehar. Senatariak aldiz, dignitas eta ospe handiko familia berdinek erabiltzen dituzten karguak dira eta zaldunak ordea, hiru mendeetan eremu dinamikoa izan zen.

Probintzia guztiak bi taldetan banatu:

- **Senatuaren probintziak** / probintzia *senatorial*: hasieran egindako probintziak gordetzen ditu batez ere zergak eskuratzeko. Hauek ez dute armadarik izango beraz zaharrenak eta baketsuenak izango dira. Senatuak gobernadorea aukeratzen du, baina hori bai beti printzearen onarpenarekin.

Gobernadoreak *proconsules* izango dira (oso gutxitan *pretore*)

- **Inperioaren probintziak** / probintzia inperialak: Hauek enperadorearen esku egongo dira, berak konkistatutakoak direlako eta, mugetan egonik, arriskutsuagoak direlako. Ondorioz, armada egotea ezinbestekoa da (printzeak hau kontrolatuko duelarik). Kasu hauetan, enperadoreak zuzenean aukeratzten zituen gobernadoreak.

Gobernadoreei, *legatus augusti propretore*.

- **Probintzia bereziak**: Mauritania (Erromatarren babespean dago, baina ez dira probintziak oraindik) eta Egipto (Egipto berezia da, konkista gauzatu zenmodua dela eta, *princeps*aren botin pertsonala konkistatzen zen).

Egipto salbuespena izango da, perfektua izango baita, kargu militarra dena.

K.a 23 urtean

- Kontsulatua utzi. Senatuaren laguntzarekin lotu. Errepublikaren beste magistratura bat hartzen ditu, 4 urte pasa dira eta hiritarren tribunadoa komeni zaio gehiago. Augustuk behar ditu kontsul izaten lortzen ez dituenak.
- Tribunadoraren potentek bereganatu
 - *Sacrosantitas*: Erahiliak ez izateko aukera, bere buruaren kontra atentatuak egoteko aukera ikusten du. Horiek delitu erlijiosak izango dira. Bere burua babesteko hartzen du.
 - Hiritarrak babesteko gaitasuna
 - *Intercessio*: Latinez, beto eskubidea. Senatuak hartutako erabakiak betoak hartu, herriarentzako kaltetzen zituzten neurriak hartzean. Beraz, orain senatua betatzeko eskuratu nahi du kargua. Ezin zuen senatuaren kontra joan, bere posizioaren deslegitimazioa egingo duelako eta horregatik kargu batetik bestera joaten da, botere ezberdinak bereganatzeko eta tiranoaren irudia ez bereganatzeko.

- Senatuari galderak inposatu

Azken erreformak

- K.a.19: *imperium consulare*, plebearen tribunatoa uzten du eta senatuaren boterea bereganatzen du. Horrela, karguz kargu joaten da errepublikako botere tradizionalak erabiliz, Errepublikan oinarritutako *princeps*-a delako.
- K.a.12: *Pontifex maximus*
- K.a.12: *Pater patriae/ Concordia*

Domus inperiala/ Gens


Augustoren proposamenak

Oinarri soziala

- armada
- *equites* → administrazioan oinarrituta

Oinarri publizitatea/propaganda

- Lehenengoa, informazioa zabaltzea du helburu
 - Augustoren helburua ez da propagandistikoa ez duelako behar bakarrik publizitatu behar du sistema.
 - Erabili zituen tresnak anitzak izan ziren
 - Estatuak/ txanponak → irudi publikoa
 - Aldarea → *Ara Pacis*
 - Horologium
 - mapa



- Foru berri bat eraikitzen du, programa ideologikoarekin bat egiten duena
- Bere hilobia programatu, monumentalak izango zena eta hiri barruan kokatuko zena (berritasun bat izan zena) + *res gestae*
- Gurtza inperialaren bidez, bertute inperial guztiak inperialok leku guztietan aitortu behar dira → identitate inperiala
- Hau dena publizitzeko egin zuen eta erromatarrak haren sistemaz konbentzitzeko modu batez.
- Aipatutako guztia eraikitzeko marmola erabili zuen
 - Bigarrena, informazio subjektiboa zabaltzea du helburu eta zabaltzen diren ideiak haien artean kontrajarriak direnean. Hauek beti edo gehienetan helburu politikoak izaten dituzte.

Oinarri ideologikoa

Res Gestae ikusten da alde batetik, bera bere sistemaren leloa azalduz → konkordiaz oinarria. Bukieran aipatzen dituzten berriak, senatuak berari eskeini ziola ezkutu bat.


➤ *Virtus*

- *Clementa*; garaituak ondo tratatzea, horrek tirania aldentzen baitu; virtus-a bezala inperiumarekin lotuta dago.
- *Iustitia* , hartzen diren erabakiak justoak izatea
- *Pietas* , erakutsi behar zaien errespetua jainkoei

Beste oinarri ideologiko bat, KASIO DION Erromako historia horretan testu bat sartzen du Augustoren boterea nolakoa izan zen azaltzeko (zeintzuk izan ziren boterearen oinarriak). Kasio dionek kontatzen du eztabaida moduan, eta hitz egiten duten pertsonak Augustoren inguruan zeuden bi pertsona ziren; Mezenas (intelektuala) eta Agripa (militarra). Hauek eztabaidatzen dute inperioak ze aldeetara jo behar du, Mezenas esaten du, inperioa konstrukzio inperiala bat da (existitzen ez den gauza bat administrazioaren puntutik sortzen ez bada) eta Agripak esaten du inperioa bakarrik existentzia izango duela armada boteretsu bat duenean.

Erantzun finala, biak behar direla eta Agustok biak lotu zituela izan zen, Kasio Dionek III.mendean idatzi zuen, beraz jo ta ke egon diren iturrietan biak behar direla inperioa aurrera eramateko konklusiora ailegatu zen. Eztabaida hau asko erabili da inperioaren grina mantentzeko eta esanez modu egokiena dela, bata edo bestea fallatzen duenean inperioak bukatzen dira.

Programa ideologiko horretan, bere etxea palatinoan kokatu zuen eta gero palazio inperiala izango zena sortzen joan zen, inguruan aurkitzen ziren etxeak erosiz. Palazio inperial hori izango da bere etxea baina aldi berean inperioko administrazioaren sedea izango da. Gainera, leku estrategiko batean kokatuta zegoela esan daiteke; aurrean, forua (botere politikoa), ezkerrean (botere erlijioso) eta atzean (plebea elkartzen den tokia). Kapitolioko muinoan, Jupiter bere altuera berdinean egongo da. Eszenografia berri bat daukate Erroman eta horrela jendeak inperioaren esanahia zein den ikusiko da.



Inperioa zentzu patrimonialean bezala hartuko du, egoitza administrazioarena bere etxean dagoelako. Beraz, ez dute desberdintzen enperadorea eta inperioaren administrazioa. Garai berantiarretan, bobeda izugarrikoak zeukatenak, bobeda handiko geletan behean jende asko dagoenean, eko eta zurrumiloa zegoelako. Bobedaren goiko partean zetazko hariak jartzen zituzten eta horrela zurrunbiloak ez zirela entzuten esaten da.

Printzipatua...

(Miren)

Zaldunen artean karrera profesional moduko bat sortuko da, funtzionario izateko antzekoa. Printzeak inperioa kudeatzeko zaldunen bidez ardurak sortuko ditu eta hoiek izango dira, procuratelak, hau da, procuratorrak dituen funtzioak, inperioaren administrazioa antolatzeko.

Senatariak berriz, betiko karrera eta postuarekin jarraituko dute, betiko karrera eginez, magistratura tradizionala, senatarien eskuetan geratuko dira (consul, praetor, aedila, quaestor). Beraz bananduta geratu ziren eta honen ondorioz, ordo quaestorren garapen handia eragingo du.

Inperioa kontrolatzeko tresnak

Inperium romanum-a martxan jartzeko eta printzearen legitimazioa indartze, enperadore guztiek behin eta berriro erreformak gauzatzeko dituzte, Augustok behar izango dituen tresna nagusiak hauek izango dira:

Armada

Inperioa kontrolatzeko armada bat beharko du, baina ez edozein armada, baizik eta leihala den armada bat. Eta nola lortuko du hori? batetik, Gerra Zibiletan inplikaturik egon ziren soldaduak lizentziatu egingo ditu. Beterano berri hauekin arazorik ez edukitzeko, lurak eta dirua emango dizkie emandako lurak ez dira Erroma ingurukoak izango baizik eta inperioaren azken mugetakoak (nagusiki Afrikan kokatuko ditu veteranoak). Bestetik, armada berri bat osatzeko du leialtasun berririk bilatzeko asmoarekin; horrela, erreklutamenduak konkistatu berriak diren lurraldeetan (Egipto, Hispania, Galia eta Germania) egingo ditu, batez ere mendebaldeko probintzietan. Soldaduak erreklutatzen direnean, *Res Gestae*n adierazten duen moduan, hauek zin egin behar dute, baina ez senatuari edo Erromari baizik eta *princepsari*; beraz, leialtasunak eta *charisma* orain *princepsarekin* daude. Laburbilduz, armada handitu eta berritu egiten da.

Administrazioa

Administrazio berri bat ezinbestekoa izango da leialtasuna bermatzeko. Erroma hiria Palatinotik kontrolatzen du, baina Erroma jada hiri bat baino ez da; gehien interesatzen zaiona inperioa kontrolatzea da eta horretarako administrazio erreforma bat martxan jarriko du. Lehenengoz, erromatar probintziak ezarri eta banatzeko ditu (Probintziak Errepublika garaitik existitzen ziren: erromatarrek lurralde bat konkistatzen zutenean probintzia bat ezartzen zuten arren, lurraldetasuna ez zegoen ondo definituta; garai honetan, ordea, *limesak* ezarriko dira eta probintzien lurraldetasuna ondo definituko da).

Printzipioz, senatuarekin boterea partekatzen duenez, antzinako probintziak senatuaren esku utziko ditu. Probintzia horiek *probintzia senatorial* izena hartzen dute eta teoriarik senatuak gobernatzen ditu: senatuak aukeratzen du gobernadorea, baina hori bai, printzearen onespenez. Argi dagoenez, normalean gobernadore gisa aukeratzen diren

subjektuak Senatuaren kideak dira. Gainerako probintziak *probintzia inperialak* dira. Hauek enperadorearen esku egongo dira, berak konkistatutakoak direlako eta, mugetan egonik, arriskutsuagoak direlako eta ondorioz armada egotea ezinbestekoa delako (printzeak armada kontrolatu nahiko du beti). Kasu hauetan enperadoreak zuzenean aukeratzen zituen gobernadoreak. Amaitzeko, estatus berezia duten zenbait lurralde geratuko dira: Mauritania (Erromatarren babespean dago, baina ez dira probintziak oraindik) eta Egipto (Egipto berezia da, konkista gauzatu zen modua dela eta, princepsaren botin pertsonala konkistatzen zen). Augustoren ostean konkistatuko diren lurralde berriak printzearen esku geratuko dira.

Probintzia inperialak eta senatorialak desberdintzeko ez da soilik lurraldetasuaren irizpidea kontuan hartu behar; horrez gain, probintzietako gobernadoreen izaera kontuan hartu behar dugu. Probintzia senatorialen gobernadoreak *proconsules* izango dira (oso gutxitan *propretore*) eta probintzia inperialetakoko gobernadoreak *legatus augusti propretore* izango dira. Egipto salbuespena izango da, prefektua izango baita, kargu militarra dena. Probintzia senatorialetan senatariek lehentasuna izango dute, baina probintzia inperialetakoko printzeak funtzionario berriak behar ditu, berarekiko leialak eta eginkizun hori egikaritzeko gai izango direnak, eta hortaz, ezin dituenak klase senatorialetik atera. Hori lortzeko, administrazio erreforma bat aurrera eramango du eta bi ordena bereiziko zituen:

- ❖ *Ordo equester*: ordena honetatik aterako ditu printzeak bere probintziak gobernatzeko funtzionarioak. Hiritar dirudunak (4000 sestertzio izan behar zuten) eta zintzoenak dira, baina ez dutenak izan senatuan ezta magistraturetan sartzeko aukerarik (triangelu famatuari dagokionez, asanblada popularren kideak izango lirake). Aristokrazia osatuko dute haien dirua ta jaiotzarengatik eta armadako buruzagiak izango dira askotan. Hauek egiten duten *cursus honorum* probintziekin lotuta egongo da; lehenik eta behin, armadan parte hartu behar zuten, ondoren *procuratores* (arduradunak) izango ziren probintzietan, era askotakoak zirenak (*procuratores sexagenarii, p.centenarii...*) eta probintzietako alor guztiez arduratzen zirenak; administrazio orokorra, itsas armadaren buruzagitza, ogasuna, burokrazia inperiala... Azkenik gobernadore bihurtu zitezkeen.

Ordo senatorioekin alderatuz, abantail bat zuten, ezin ziren ekonomian aritu baina probintzien zergak jasotzekoa ardura zuten eta horretaz aparte, merkataritzat ere aritzen ziren.

Zaldi publikoa; *recognitio equitum*-aren ospakizuna

Betebehar militarrek; 10 kanpaina egin behar zituzten karrera militarra aukeratzekotan

- ❖ *Ordo senatorio*: hauek senatuko kideek osatuko zuten, hots, Erromako 400 familia inguru izango ziren eta bertatik probintzia senatorialetako gobernadoreak eta funtzionarioak aterako dira.

Hasieran 300 ziren, Zesarrekin 900 izatera iritsi ziren eta Printzipatuan 600 geratu ziren. *Album* (zerrenda modukoa) eratzen zen bost urtean behin

Hasieran 300 ziren eta Zesarrekin 900 izatear iritsi ziren eta printzipatuan 600 geratu ziren

Album (zerrenda) bost urtean behin

Atera; aktoreak, gladiadoreak, esklabu saltzaileak eta hildakoen artean lan egitea

Sartu: magistradu ohiak, demografiaren beharrak, ordo equesterretik onartuak dira

Janzkerari dagokionez garrantzia handia zuen Erromako inperioan eta gizartea ondo ulertu zitekeen janzkeraren bidez.

Angusti-ae: estatutasuna. Kalean ere, ezberdintzen ziren, zaldunak eta senatariak (marra ezberdina ematen direlako). Angusti clabius eta Latin clabius.

Emakumeen janzkera: Tunika motza eta togarik ez. Tunikaren gainean jantziko dute kapa moduko bat, Estola izenekoa. Baina bi kasuetan, ordo *senatorius* edo ordo *equesterren* emakumeak izango dira *matronae* izango dira; edo *matronae senatorius*

edo matronae equesterren. Estola hori emakume ezkonduak eramaten dituzte, 16 urterekin ia guztiak ezkonduak zeudenez, ia guztiek eramaten dituzte.

Cómo se vestían los romanos How Romans Dressed



Zaldunak, gainontzekoengatik desberdinduak itxuraz ere bereizi ziren, *augusticlavius* (estuagoa) izeneko banda bat jartzen zuten eta senatariek berriz, *laticlavius* izeneko banda (zabalagoa). Senatariei eta familiari deritzo *classimus* izena erabiliko da (emakumeei *classima*).
Hauteskundeetan toga bereziak ematen dituzte, hautagai direla ikusi ahal izateko. Emakumezkoen estola kolore nagusiak; gorria eta urdina (hori prostituten koloreak dira).

Normalean, saldaliak. Germania eta Galiarrak ordea, botak erabiltzen hasi ziren eta toga ordezkarak ere. Ilea, Printzipadoaren lehen urtetan motza eta barbarik gabekoa. II. mendetik aurrera, barba jartzen dute. Bizardun enperadoreak berantiarak dira, lehenen mendekoak bizar gabea. Emakumeekin, denborarekin ilea eramateko era konplexu zen. Ilea normala, lehen mendean, mototxak, kizkurrak etab. II. mendetik aurrekoak dira. Hemendik aurrera enperadoreek markatuko dute moda, printzipatuaren lehenengo urtetan ile motza eramango dute baina ez gehiegi eta geroago bizarra.

Normalean, probintzia inperialetan bi motatako arrisku edo beldur existitzen ziren, printzearen eta armadaren etengabeko presentzia justifikatzen zutenak: 1) matxinadak, *seditiones et tumultus* (Germaniako, Britainiako, Judeako, Alexandriako eta Cyreneko matxinadak izango dira garrantzitsuenak); 2) Inbasioak: dena den, inbasioak ez dira larriak izango III. mendera arte. Horiek dira printzeak, bake eragile bezala, kudeatu behar zituen kanpo arriskuak.

Barruko arazoak guda zibilak izango dira, ondorengotza kolokan dagoelako beti hau da, ondorengotza zalantzan jartzen denean, *consensusa* apurtu egiten da eta gerra zibila pizten da. Kanpo nahiz barne arazoek printzearen figuraren legitimatzaile gisa funtzionatzen dute. Esan dezakegu, bi arriskuak erlazionatuta daudela edo bata bestearen mesedetan daudela, izan ere, gerra zibila saihesteko, printzeak bake eragile lan hori egin behar du kanpoan, bere figuraren beharra aldarrikatzeko eta ondorengotza zalantzan ez jartzeko.

Beste modu batean azalduta: ondorengotza hori bermatzea lortzen ez zenean, *consensusa* apurtzen zen eta gerra zibila pizten zen. Bere boterea finkatzea lortzen zuen printze berriak, Augustok bezala, salbatzailearen lana egin behar zuen (salbatzailea zen barne arazoetan). Baina gerra zibilak etengabe egotea ez zen ona inperioarentzat, ezegonkortasuna ekartzen baitzuen, eta horregatik printze berriak egin behar zuena zen bere figura behin eta berriro indartzen saiatu, baina ez barneko salbatzaile gisa baizik eta kanpoko bake eragile gisa (matxinadak eta inbasioak zapaltzen). Horrela, printzea gerra zibilak saihesten eta ondorengotza bermatzen saiatuko da etengabe.

Monarkia izan arren behin eta berriro kuestionatuko dute bere figura. Usurpazioaren arazoa ere agertuko da, baina batez ere, Antzinate Berantiarrean, printzeari ez zaiolako legitimidadea aitortzen. Legitimidadearen kontrako erasoak bortitzak izan daitezke, hau da, armadaren bidez gauzatutakoak, edo eraso moralak izan daitezke.

Augusto hiltzean arazo bat panteatu zen, nola aukeratu printze berria? Ondorengotza bi aukera zeuden:

- 1) Printzipatu dinastikoa; printza bere familia barruan kokatzen zen. Augustok Tiberio adoptatu zuen bide aukeratu ahal izateko.
- 2) Printzipatu zibila; dinastikoa izan beharrean printzea gizon hoberen artean aukeratzea

Aukera bikoitz honek eztabaida intelektual bat ekarri zuen, baina lehenengo momentuetan ez zena egongo printzipatu dinastikoa aukera baitzen. Augusto eta bere dinastiarekin, Julio-Claudiar dinastearekin, kontrako taldeak daude baina ez dira indartsuak ez baitute partaide askorik ezta sostengu militarrik; horrez gain eztabaida

intelektualik egiteko gai ere ez dira. Beraz beste modu batean egingo dute oposizioa, hain zuzen ondorengotza kritikatu. Kontuan izanik printzea izateko borroka armatua eta eztabaida intelektuala ezinezkoa zirela egingo dutena izango da ondorengotzaren egiazkotasuna zalantzan jarri eta hori egiteko etxe inperialeko emakumeen aurka egingo dute, hauek baitziren ahulenak: Augustoren alaba ninfomana izango da, Kaligula bere arrebeekin ezkondu zenez bere ondorengoak ez dira egokiak izango, desbideratuak izango baitira, Mesalina *meretrix* bezala izendatuko da, Agripina pozoietan aditua zen.. Horrelako ospea izango dute familia horretako emakumeen ondorengotza kolokan jartzeko modu bakarra da. Horrelakorik beharrezkoa izan ez zenean, orduan etxe inperialeko emakumeak eredugarri bihurtu ziren.

6.INPERIOAREN EZARPENA: JULIO-KLAUDIARRAK ETA FLAVIARRAK

Julio-Klaudiarrak

Hemendik aurrera sistema dinastien artean funtzionatuko du :

- 1.Julio Claudiotarrak
- 2.Flaviotarrak
- 3.Antonioniak
- 4.Severotarrak

I. mendean Julio Klaudiarrak egongo dira lehenengo; hau da, Augusto eta bere ondorengoak, bere familiako -Julio-klaudiar familia- kideak direnak: Augusto, Tiberio, Kaligula, Klaudio eta Neron. Printzipatua, hortaz, printzipio dinastikoan oinarrituko da eta honek arazo ideologikoak sortarazi zituen. Izan ere, Augustok behin eta berriro aldarrikatu zuen Erromak errepublika izaten jarraitzen zuela, eta monarkia eta erregetza bezalako egituren aurka egin behar zela. Beraz, oinarrizko kontraesan bat zegoen. Dinastia modu hori mozorrotzeko, boterean zegoen printzeak bere oinordekoa politikoki adoptatzen zuen, bere seme bihurtuz eta *imperiuma* harekin partekatuz. Horrela printzea hilez gero, adoptatutako seme politikoak jada *imperiuma* egikaritzen zuenez, printzea bihurtzeko legitimatuta zegoen.

Julio Klaudiarrak beraz, familiaren barnean boterea hartuz, dinastia bat sortu zen. Neron enperadorea zela, gerra zibila piztu zen eta dinastia julio-klaudiarra kendu, eta dinastia flaviarra ezarri zen: Vespasiano, Tito eta Domiziano (aita eta bi semeak). Hauek ere printzipio dinastikoa erabiliko dute odolezko familiaren barnean boterea partekatuz. Domizianorekin sistema dinastikoa berriz ere porrot egingo du eta sistema zalantzatan jarriko da. Orduan, *princeps civilis*-aren eredua proposatuko da: aukerak dituzten guztien artean onena dena aukeratu, nahiz eta familia inperialeko kidea ez izan. Hain zuzen, hau da antoninoek jarraituko duten eredua: Trajano, Hadriano, Antonino Pio (garrantzitsuena), Marko Aurelio eta Komodo. Sistema berri hau Komodorekin krisian sartu zen eta sistema dinastikora bueltatu ziren erromatarrak, severotarren dinastia

(Septimio Severo (193–211), Geta (211), Caracalla (211–217), Heliogábalo (218–222) eta Alejandro Severo (222–235)) ezarritz.

Dinastia aldaketa bakoitza erakundearen krisiaren puntuak dira, hau da, printzearen existentzia kolokan jartzen da eta horren eraginez, guda zibilak egongo dira, eta printzea aldatu egingo da pertsonak aldatzen dira ez sistema (printzipatua izaten jarraituko du Erromak, sistema ez baita inoiz kolokan jarriko).

Orduan printze berriak bere posizioa legitimatzeko, inperioan erreforma berriak egingo ditu inperioa bere alde jartzeko eta inperio territorialaren boterea indartuko du. Normalean beren boterea bermatzeko eta legitimatzeko hartzen dituzten neurriak inperioaren batasunarekin zerikusia dute: beraz, batetik, arlo militarrean kanpainak gauzatzen dituzte, inperioaren bakea eta segurtasuna bermatzeko; eta, bestetik, barne erreformak gauzatzen dituzte, integrazioari lotutakoak gehienbat, geroz eta jende gehiago inperioko sisteman barneratzeko (hiritartasuna erraztuko dute, zergak eta armadarako jendea behar izango dutelako). Bozketa sistemak indarrean jarraitzen du, hau da, printzearen erabakiak lehenago senatuak berresten ditu, printzipioz berarekin partekatzen baitu boterea, eta azkenik, asanbladek berresten dute senatuak eta printzeak esandakoa. Baina, sistema hau itxurazkoa baino ez da, printzearen erabakiak errealitatean ez duelako berrespenik behar indarrean jartzeko.

Hala ere, honek ez du esan nahi asanbladek garrantzirik ez dutenik; izan ere, asanblada militarrek paper garrantzitsua jokatuko dute printzearen boterea berresteko orduan. Printzeak denborarekin konturatuko dira senatuak eta asanblada militarrek jada ez dutela botererik eta garrantzitsuena asanblada militarren edo asanblada pretorianoen mesedea edukitzea dela.

I., II. eta III. mendeak mende lasai gisara irudikatuak izan dira beti, berez garai oso ezegonkorra izan zen: bakarrik Augusto eta Vespasiano hil ziren ohean, beste guztiak erailak izan ziren. Ezegonkortasun hori dela eta, armadaren presentzia geroz eta garrantzitsuagoa izango da bakea, oreka eta boterea ziurtatzen baititu. Horrela, inperioa gero eta gehiago militarizatuko da

Flaviarrak (Vespasiano-Tito-Domiziano): K.o.68-96



K.o.68: lau enperadoreen urtea Gerra Zibila

Julio Klaudiarren ondoren inperioaren izaera militarra geroz eta gehiago zela islatzen dute Flaviarrak. Neron bere buruaz beste egiten dituen K.O.68.urtean ezegonkortasun politikoa sartuko da eta urte bakar batean 4 enperadore ezberdin egongo dira.

Julio Klaudiarrak bukatu eta gero beste gerra zibila bat egon zen askotan erromatarrek uste zuten haien historia gerra zibilen historia zela. 4 enperadore hoiak izan ziren, Galba, Oton, Vitelio eta Vespasiano izan ziren. Vindex Galian matxinada bat bulzatu zuten baina hil zuten, enperadore bakoitza probintzia bakoitzaren armadaren kontrola zuten haiek matxinatzerakoan horren atzean lurraldeko armada zegoen:

- Galba: Hispaniako armadarekin
- Oton: Italiako armadarekin
- Vitelio: Germaniako legioekin saiatu zen
- Vespasiano: Egiptoko legioekin

Probintziak boterearen banaketan sartuko dira armadaren bidez enperadore guztiak berez erromatarrak ziren botere politikoa Erroman jaioz eta hilez. Enperadore berriak jartzen zituztenak guardia pretorianoa zen, baina Neron hiltzean aldatzen da eta hoi ordez legio ezberdinak probintziakoak enperadore berriak ezartzeko eskubidea izango dute.

Vespasianoren kasua bitxia da, Egiptoko legioa hartu zuelako eta hau izango da irabaziko duena justu Augustoren kontrakoa, honek printzipatua mendebaldekoen

laguntzaz eta hau berriz, Ekialdekoen laguntzaz. Horregatik Vespasiano mexpretsatu zuten Marko Antonio berria zela esanez.

Ondorioak

- Erroma, inperioko zentroa
- Armada probintzialetako pisua handituko da Erroma berak armadaren boterea galduko duelako eta administrazioarekin soilik geratuko da.
- Errestaurazio politikoa behar zen eta beraz bere burua Augusto berritua bezala aurkeztu zuen, Kaligula, Neron eta Augustorekin gertatuko zenbait gauza baztertuko zituela.
- Botere inperiala indartzen da
- Palatinoan domus flavia eraikitzen du iadanik zegoen domus augustarekin ondoren
- Gurtza inperiala ia ez da izango bakarrik divus-arena hau da, enperadorea hiltzen denean baizik eta bizirik daudenean eta bizirik daudenean ez da divis baizik eta devus. Horrela legitimazioaz indartzen da eta enperadorea saralizatzen da
- Ondorengotza bat sortuko da dinastia berriz sortuz, flaviarra hain zuen ere. Printzipatu sistema politikoaren indartzea izango dena.

Dinastiaren aldaketa

Neronekin ikusi zen non zegoen ahulezi nagusia, berez erromatar inperioaren ahulezia zena; ondorengotzaren arazoa. Ondorengotza ez zegoela egongo ikusi zenez bere inguruan biltzen hasi ziren ondorengoak nor izango zen ikustearren (askok Errepublikara itzuli nahi zutelako). Lehenengoak, senatariak izan ziren, hauek printze berri bat nahi zuten sistema haiei komeni zitzaielako, aurretik aipatutako lauak Neroren senatariak ziren. MIREN.

Probintzietako eliteak eta armada beti doaz bere hautagaiarekin. Beste berrikuntza bat ondorioztatu zen enperadore berriak ez zirela erromakoak izango baizik eta probintziako. Lehenak, Vespasiano Italiakoak izango dira, Antonioarrak Hispaniarrak izango dira eta Severotarrak Siriarrak izango dira.

Ideologiaren eraketa

Augustoren moduan inperioa bukatzean saiatuko da, lehen leloa *Pax eta victoria* izango da. Jendeak jakiteko dinastia berria jaio dela eta doazen ideiak txanponen bidez egiten dira, augustoren antzeko leloa izan zen, Res Gestae-n bakea ere aldarrikatzen da. Baketa eta Garaipena (Vespasiano), monumenturik egion ez dirurik ez, Augustok ordea dirua zeukan eta *Ara Pacis* egin zuen. Vespasiano agortua ekonomikoki gerra zibilarengatik eta txanponetan batez ere bere ideiak edo lelo ideologikoak luzatu zituen inperio osotik. Txanpon askotan agertzen da legenda hau..MIREN

Hala eta guztiz ere arazoak egon ziren ez bakarrik Viteliorekin baizik eta ere barneko matxinadak konpondu behar izan zituen bakea aldarrikatzeko. Siriako gobernadorearen laguntzarekin Egipto kalmatu zuen, mendebaldean germaniarra (Barbaroen matxinada) bere kontra. MIREN . 66.urtetik juduak matxinatuak zeuden eta lau urteko guda ondoren Tito bere semearekin garaitu zituen.

Errestaurazio augustoarra

